

5. GIZARTE EKINTZA ETA KOMUNITATE GARAPENA

SARRERA

Gizarte Ekintzako eta Komunitate Garapenerako Alorrak Udalaren gizarte-zerbitzuen sistema herritarren eskura jartzea ahalbidetzen du, herritarren beharrei erantzuna emanda, komunitate solidarioagoa, orekatuagoa eta gizarte-kohesio handiagokoa lortze aldera.

- Herritarren sentsibilizazioa eta elkartasuna sustatzea, gizarte-kohesio handiago bat objektibatzeko tresna gisara. Topaguneak sortu eta iraunaraztea, pertsonak, taldeak eta elkarteak parte zein konpromisoa har dezaten auzoetako biztanleen bizi-baldintzen hobekuntzan.
- Herritarrek nozitzen edo nozitu ahal dituzten premiazko gizarte-egoerei aurrera hartu eta antzematea, eta harrera egitea herritarrei gizarte-zerbitzuetako eta -orientazioko sisteman, auzo-unitateen bitartez.
- Mendekotasun-egoeren prebentzioa, norberaren autonomiaren sustapena eta beren kabuz moldatzeko arazoak dituzten pertsonendako zein mendekotasuna dutenen arta, Etxez Etxeko Zerbitzuaren bidez edota mendekotasuna duten pertsonendako bestelako prestazioetara bideratuz.
- Bazterturik gelditzeko arriskuan edo bazterturik dauden pertsonak gizarteratzeko eta lan munduan sartzeko ekintzak, ibilbide pertsonalizatuak osatuta. Prestakuntza- eta enplegu-programen garapena, aipatu pertsonen enplegararritasuna hobetzeko, eta gizarte-enplegu babestuari buruzko proposamenen formalizazioa, haien gizarte- eta lan-sustapenari begira.
- Pobreziari eta gizarte-bazterkeriari kontra egiteko ekintzak, batik bat, gizarte-larrialdiko egoerei aurre egitera bideratutakoak.
- Bizileku-baliabideak gizarte-larrialdi baten edo haien inguruabar sozio-pertsonalen ondorioz gizarte-egoera ahulean dauden pertsonendako (adinekoendako apartamentuak, emakumeendako eta haien seme-alabendako etxebizitzak, etxerik gabeko pertsonendako udal-zerbitzua...), eta gizarte-larrialdiko etxebizitzak.
- Haurrei eta familiei laguntzeko programak. Prebentzioa, detekzioa eta esku-hartzea adingabeen arrisku- edo babesgabetasun-egoeretan zein gizarte-gatazkakoetan.
- Arreta intentsiboa, espezializatua eta pertsonalizatua, genero-bortizkeria nozitzen duten edo nozitzeko arriskuan dauden edota beren autonomia berdintasun-baldintzetan baliatzeko gizarte-zailtasunak dituzten emakumeendako eta haien seme-alabendako.
- Garapenaren aldeko lankidetzak eta nazioarteko elkartasuna garatzeko udal-politika.
- Lankidetzak-hitzarmenak Nafarroako Gobernuarekin.
- Kanpoko finantzaketa-iturrien atzipena, gizarte zerbitzuen programak garatzeko.

- Informazio-sistemak garatzea, gizartearen errealitatea ezagutu eta emandako zerbitzuen plangintzara eta ebaluaziora zuzendutakoak.

GIZARTE EKINTZA ETA KOMUNITATE GARAPENA

Alorrak 2016an abiarazitako prozesuek aldeaz edo moldez aldaketa esanguratsuak eragin dituzte udalaren gizarte-zerbitzuen etorkizuneko garapenean. Hasteko, Udalak Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua hartu zuen bere gain. Prozesu hura Alorrak berak gidatu zuen, eta Udalak Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren zuzeneko kudeaketa onetsi zuen, abenduaren 30eko osoko bilkuran. Halaber, aurrekontuetan nahiz plantillan, zerbitzua emateko behar bezalako neurriak hartu zituen. Praktikan, bi enpresa horien langileek Iruñeko Udalaren plantilla handitu zuten, 166 jardunalditan handitu ere, zerbitzua era eraginkorragoan emateko.

Auzo Unitateak, gainera, Oinarrizko Laguntzarako lau programen ezarpena ebaluatzeko prozesuan aritu ziren bete-betean, unitateetako langileek aspaldian eskatu bezala. Lau programetako profesionalek osatutako talde eragile batek Nafarroako Unibertsitate Publikoarekiko elkarlana gidatu zuen; garapenean, espazioak bilatzea izan zen xedea, Auzo Unitate guztiek parte har zezaten; halaber, Gizarte Zerbitzuen Erabiltzaileen Informatika Sistemako teknikariak emaniko informazioa erabili zen, bai eta alorreko aplikazio informatikoak ere.

Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzuak bere 25. urtemuga ospatu zuen 2016an, ekitaldi sorta zabala antolatuta. Programazioak zerbitzua agerrarazi nahi du, aitzindaria izan baitzen Nafarroan, eta, aldi berean, ikusgaitasuna eman nahi dio Iruñeko emakume askok egun oraindik ere pairatzen duten indarkeria sexistari.

2016an, beste bi prebentzio-talde osatu ziren auzoetan jarduketak egiteko, Milagrosa-Azpilagaña eta Mendillorri-Erripagaña sartu baitziren. Beraz, guztira, zazpi prebentzio-talde zeuden. Talde berriak, beraz, Arrotxapean, Txantrean, Sanduzelain, Alde Zaharrean eta Etxabakoitzen ari zirenei gehitu zitzaizkien.

OINARRIZKO LAGUNTZA

Auzo Unitateak (AU) herritarrek gizarte-zerbitzuetan sartzeko ateak dira. Herritarren eskariak jaso, haien zailtasunei lehen erantzuna eskaini, eta gizarte-babeserako sistemetan sartzeko bidea errazten diete. Iruñean hamabi dira: Alde Zaharra, Txantrea, Etxabakoitz, Zabalgunea, Ermitagaña, Iturrama, Mendillorri, Milagrosa, Arrotxapea, Sanduzelai, Donibane eta Buztintxuri.

Mendillorriko AUK Erripagañako auzokideak hartzen ditu 2016az geroztik. Lezkairu, berriz, Zabalgunearen eta Milagrosaren artean banatua dago.

2016an, Iruñeko Auzo Unitateek 43.391 kasu artatu zituzten. Kopuru horrek goraka egin du, aldiari, 2008. urtean artatu ziren 23.576 kasuez geroztik.

Urtea	2012	2013	2014	2015	2016
Zenbat arta	36.038	37.468	42.647	41.667	43.391

AU bakoitzaren arabera arta- banaketa, eta zer ehuneko egiten duten auzo bakoitzaren biztanleria guztiaren gainean

AU	2012	%	2013	%	2014	%	2015	%	2016	%
Buztintxuri	1.947	4,96	1.782	5,21	2.259	5,56	2.224	5,34	1.793	4,13
Alde Zaharra	3.706	10,65	3.827	9,91	3.837	9,44	3.675	8,82	3.337	7,69
Txantrea	5.370	14,74	5.297	14,36	5.592	13,76	5.450	13,08	4.766	10,98
Etxabakoitz	2.222	5,44	1.954	5,94	2.830	6,96	3.216	7,72	1.916	4,42
Zabalgunea	3.067	8,18	2.938	8,20	3.434	8,45	3.375	8,10	3.514	8,1
Ermitagaña	1.931	4,66	1.676	5,16	1.899	4,67	2.060	4,94	1.610	3,71
Iturrama	1.676	4,64	1.666	4,48	1.506	3,71	1.465	3,52	2.422	5,58
Mendillorri	1.608	3,78	1.360	4,30	1.442	3,55	1.799	4,32	2.654	6,12
Milagrosa	4.422	11,52	4.140	11,82	4.849	11,93	5.203	12,49	7.156	16,49
Arrotxapea	6.079	16,03	5.759	16,26	6.380	15,70	6.564	15,75	7.846	18,08
Sanduzelai	3.092	6,99	2.871	8,27	3.960	9,75	3.488	8,37	3.484	8,03
Donibane	2.276	7,42	2.665	6,09	2.645	6,51	3.148	7,56	2.893	6,67
GUZTIRA	37.396	100	35.935	100	40.633	100	41.667	100	43.391	100

Aurreko urteetan bezala, artagehienak Arrotxapean, Milagrosan eta Txantrean egin ziren (baina azken auzo horretan, badirudi joera jaisten hasia dela). Nabarmentzekoa da Mendillorriko eta Iturramako auzo-unitateetan izaniko arten gorakada.

2016an, Auzo Unitateetan izaniko artak (datu osoak eta ehunekoetan)

AUZO UNITATEAK	2016 (guztira)	2016 (ehunekoa %)
BUZTINTXURI	1.793	4,13
ALDE ZAHARRA	3.337	7,69
TXANTREA	4.766	10,98
ETXABAKOITZ	1.916	4,42
ZABALGUNEA	3.514	8,10
ERMITAGAÑA	1.060	3,71
ITURRAMA	2.422	5,58
MENDILLORRI	2.654	6,12
MILAGROSA	7.156	16,49
ROCHAPEA	7.846	18,08
SAN JORGE	3.484	8,03
DONIBANE	2.893	6,67
IRUÑA	43.391	100,00

Auzo Unitateek Oinarritzko Laguntzako lau programetan sartzeko bidea eskaintzen diete herritarrei, baita Nafarroako Gobernuaren prestazioetarako sarbidea ere.

Oinarritzko Laguntzako programak

HARRERA ETA GIZARTE-ORIENTAZIOKO PROGRAMA.

Herritar guztiei zuzendutako programa da eta haien eskariak jasotzea du xede. Herritarren arazoei lehen erantzuna eskaintzen die, gizarte-babeserako sistemetako prestazioetan sartuz eta, behar izanez gero, oinarritzko laguntzako edo laguntza espezializatuko gainerako programetarako sarbidea emanez. Era berean, auzoetan elkartegintza sustatzen du auzokideen partaidetza eta elkartasun-sareak bultzatzeko, topaketa-guneak, sare sozialak eta boluntariotza indartuz.


NORBERAREN AUTONOMIA SUSTATZEKO ETA MENDEKOTASUN-EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ARTA EMATEKO PROGRAMA

Udalak baliabideak eskaintzen ditu, norberaren autonomia sustatzeko, mendekotasunezko egoerei aurrea hartzeko, eta, era berean, bere kabuz moldatzeko arazoak dituzten pertsonen eta mendekotasunean daudenei edo egoteko arriskua dutenei laguntza emateko, betiere beren ohiko ingurunean. Behar izanez gero, gainera, etxetik kanpoko baliabide alternatiboetan sartzeko aukera ematen du, banakako, taldekako eta izaera komunitarioko artaren bidez.

Programa horretako profesionalek Nafarroako Mendekotasunaren Agentziako (NMA) eta Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko (EELZ) prestazioak kudeatzen dituzte.


Mendekotasunari lotutako prestazioak, AUn kudeatuak

AUZO UNITATEAK	GUNEAK:		
	Errekonoiz./Balioa	Berraztertzea	B.A.T.
Buztintxuri	12	0	9
Alde Zaharra	37	3	33
Txantrea	93	3	124
Etxabakoitz	15	0	0
Zabalgunea	61	12	115
Ermitagaña	35	7	69
Iturrama	37	6	106
Mendillorri	36	3	33
Milagrosa	58	5	81
Arrotxapea	92	0	71
Sanduzelai	31	2	34
Donibane	78	0	118
Iruña	585	41	793



NMAren prestazioaren onuradunak 2016an (laburpena)

AUZO-UNITATEAK	Diru-laguntza: zainketak familia-ingurunean		DLE Desgaituak		Laguntza pertsonalerako prestazioa	
	Pertsona kop.	Ordaindua guztira	Pertsona kop.	Ordaindua guztira	Pertsona kop.	Ordaindua guztira
Buztintxuri	100	91.604,32	2	6.562,84	0	0
Alde Zaharra	112	229.855,55	5	17.164,85	0	0
Txantrea	357	736.491,43	7	18.138,25	0	0
Etxabakoitz	338	191.868,15	1	4.430,64	0	0
Zabalgunea	232	812.949,49	2	7.527,43	0	0
Ermitagaña	102	517.399,72	2	4.900,76	3	10.666,00
Iturrama	264	606.362,79	5	22.029,60	3	14.687,82
Mendillorri	169	270.123,87	4	17.718,36		
Milagrosa	366	797.289,84	2	7.013,98	2	6.949,92
Arrotxapea	388	708.024,13	5	10.053,70	0	0
Sanduzelai	253	390.582,45	4	16.926,60	0	0
Donibane	303	706.101,18	0	0	0	0
Iruña	2984	6.058.652,92	39,00	132.467,01	8	32.303,74




ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA (EELZ)

EELZk 4.769.793 euroko gastua gauzatu zuen 2016an, eta zuzeneko arta eskaintzen du pertsona hartzaileen etxean bertan, gehienez bi orduz egunero. 2016an, 1.152 lagunek erabili zuten zerbitzuaren prestazioetako bat. ASIMEC (publikoa) eta SARQUAVITAE (pribatua) enpresek 176.011 ordutan eman zuten zuzeneko arta, 998 etxebizitzatan. Halaber, 80.528 bazkari eta 16.729 afari zerbitzatu zitzaizkien 384 pertsonari, erabiltzaileen beharretara egokitutako menuak eskainita. Azkenik, arropa garbitzeko 865 zerbitzu eman ziren, 24 etxebizitzatan.

EELZ. Eragina AUen gestioetan

AU	Enkarguak	Aldaketak	Laguntza-kopurua	Bajak	ARTAK GUZTIRA
Txantrea	50	88	2	57	197
Arrotxapea	27	93	13	49	182
Milagrosa	35	67	7	49	158
Alde Zaharra	32	52	32	30	146
Iturrama	26	28		26	80
Donibane	17	30	3	40	90
Sanduzelai	26	31	4	26	87
Zabalgunea	23	36	5	27	91
Ermitagaña	24	29	7	25	85
Mendillorri	8	12		16	36
Etxabakoitz	4	3	1	10	18
Buztintxuri	12	7		4	23
GUZTIRA	284	476	74	359	1.193

EELZrantz bideratutako arta kopuruaren arabera antolatuta, AU hauek nabarmentzen dira: Txantrea (% 16,51), Arrotxapea (% 15,26), Milagrosa (% 13,24) eta Alde Zaharra (% 12,24). Lehen auzoek eta Donibanek baja kopururik handiena izan zuten zerbitzuan, 2016an.




HAURREI ETA FAMILIEI LAGUNTZEKO PROGRAMA

Programaren helburua da haurren eskubideak bermatzea, haien garapena ahalbidetuko duen ingurunea ziurtatuta, prebentzio, sustapen eta babes arloko neurrien bidez, laguntza pertsonala, familiarra eta soziala emanaz, eta, era berean, familian esku hartzea, babesgabetasunezko egoerak gertatzen direnean, adingabeen instituzionalizazioa eragozte aldera. Taldeko profesionalak adingabearekin eta familiarekin lan egiten dute (familien harrera, egoera ikertzea, balorazioa, diagnosis familiarekin batera egitea, esku-hartzea, jarraipena eta azken ebaluazioa), bai eta arlo komunitarioan ere (prebentzio eta esku-hartze komunitarioa).

Programak, era berean, hiriko haurren eta nerabeen egoera ikertu eta aztertzen du, Nafarroako Gobernuak Adin Txikikoak Babesteko ataleko taldeekin elkarlanean.

	2012	2013	2014	2015	2016
Artatutako familiak	563	617	710	844	792
Artatutako adingabeak	650	1.067	1.252	1.365	1.558

2015aren aldean, familia kopuruak behera egin bazuen ere, % 13 adingabe gehiagok jaso zuten arta. Artatutako guztietatik, eta balorazioa egin ondoren, 156 adingabek ez zuten agertu babesgabetasun-adierazlerik; 329 arriskuan zeuden; 374, babesgabetasun arinean; 354, babesgabetasun moderatuan; eta 165, berriz, babesgabetasun larrian. 2016ko abenduaren 31n, 180 adingabe zeuden baloratzeko.



2016an, 336 adingabe artatu zituzten lehen aldiz programan (174 mutil eta 162 neska). 2016ko esku-hartzea 229 adingaberekin bukatu zen (127 mutil eta 102 neska); beraz, programa 107 lagunetan gehitu zen egiazki.


FAMILIETAN ESKU HARTZEKO ZERBITZUA

Haurrei laguntzeko programak berariazko baliabide hau dauka, lehiaketa publiko baten bidez kudeatua, babesgabetasunekoegoeretan esku hartzeko, adingabeen etxean bertan. 2016an, 148 familiatan/239 adingabetan esku hartu zen.


	2012	2013	2014	2015	2016
Familia-kopurua	106	126	123	140	148

2016an, aldaketa handiak izan ziren auzoen arabera banaketan, 2015arekin alderatuta. Adierazgarriena, Arrotxapeko kasuak jaitsi izana izan zen, eta, aldiz, Txantrean eta Zabalgunean igo izana. Baliteke aldaketa horiek lotura izatea larritasun moderatuko kasuak HNALera bideratu izanarekin.

Familia artatuen banaketa auzoen arabera, 2016an



Denbora-tarte handiagoan, Mendillorriko lau puntuko igoera mailakatua da nabarmentzekoa azken bost urte honetan, % 13tik % 17ra igo baita.



Hezkuntza arloko esku-hartzean lau tipologia daude: gurasoen gaikuntza, familia-osagarria, norberaren autonomia garatzea eta bizitza heldurako trantsizioa. Horrez gain, zalantzazko pronostikoa esaten zaion programa bat ere bada, argi eta garbi zehaztuta gelditu ez diren egoerak edo adierazleak baloratzeko erabiltzen dena, intentsitate handiagoa behar baita horretarako.


Abenduaren 31n, kasu gehienak gurasoak gaitzeko azpiprogramari zegozkion, hots, artatutako familia guztien % 59; gero, familia-osagarriari dagokion azpiprograma zetorren, kasuen % 29rekin. Zalantzazko pronostikoa izeneko azpiprogramako kasuak gutxiago izan ziren ehunekoetan, ez baitziren guztien % 10era iritsi. Datu horiek haurrei laguntzeko programak berregituratu izanari egozten zaizkio.

PREBENTZIO EKINTZA KOMUNITARIOKO ZERBITZUA

Zerbitzua, oro har, oinarritzko prebentzio- eta babes-egitura bat garatzen saiatzen da auzoetan, haur eta nerabeendako, eta, era berean, berariaz saiatzen da gizartean zailtasunak dituzten adingabeen babes komunitarioa egiten. Behar bezalako inguruneak sustatu nahi ditu, 18 urtetik behekoen garapen pertsonala ahalbidetzeko, esparru komunitarioan jarduketak eginez, babesgabetasunezko egoerak agertzea eragozte aldera edota egoera horiek zuzendu edo aldatzera bideratutako laguntza-formak bultzatze aldera.

2016an, prebentzio-taldeak zazpira iritsi ziren, auzoetan jarduketan egiteko, Milagrosa-Azpilagaña eta Mendillorri-Erripagaña sartu baitziren. Talde berriak, beraz, Arrotxapean, Txantrean, Sanduzelain, Alde Zaharrean eta Etxabakoitzen ari zirenei gehitu zitzaizkien.

2016an, jarduketetan aritutako parte-hartzaileen taula



Nabarmentzekoa da zerbitzuok duten gaitasuna nerabeak hainbat jardueratan boluntario ari daitezen. 2016an, 544 gazte aritu ziren, hain zuzen ere. Urte osoan, gainera, 407 nerabe eta gazte prestatu ziren hezitzaile komunitario gisa (221 neska eta 186 mutil).


GIZARTERATZEKO PROGRAMA

Helburu du bazterturik gelditzeko arriskuan edo bazterturik dauden pertsonen gizarteratze-bidea sustatzea; hartara, banakako gizarteratze-ibilbideak diseinatzen dira, eta pertsona horiek gizarte- eta hezkuntza-laguntza jasotzen dute. Halakoetan, gizarte-laneko eta gizarteratze arloko teknikariek esku hartzen dute, Gizarte Enplegu Babestuekin koordinatuta.

Gizarteratzeko programak 749 familiarekin eta, guztira, 948 pertsonarekin lan egin zuen; berezko baliabideak ditu, hala nola gizarte- eta hezkuntza-laguntza eta esku-hartze psikologikoa, esku-hartze berariazkoagoa eta integralagoa (613 kasu, 2016an) eta esku-hartze psikologiko handiagoa (30 pertsona, urte horretan) behar duten egoerei aurre egite aldera. Baliabide horrek, halaber, aholkularitza psikologikoa ematen die profesionalei beren esku-hartze soziala egokiro gara dezaten.

Programaren datuak, auzoen arabera, 2016an

GIZARTERATZEKO PROGRAMA	Familia- unitateak	Programaren erabiltzaileak	Gizarte- eta hezkuntza-laguntzan ari diren pertsonak	Esku-hartze psikologikoan ari direnak
Buztintxuri	54	72	61	2
Alde Zaharra	64	76	52	5
Txantrea	105	137	55	2
Etxabakoitz	68	87	50	2
Zabalgunea	67	78	27	0
Ermitagaña	55	66	47	4
Iturrama	18	22	17	1
Mendillorri	43	55	41	2
Milagrosa	64	80	65	4
Arrotxapea	104	127	82	4
Sanduzelai	76	110	91	3
Donibane	31	38	25	1
Guztira	749	948	613	30



Gainera, programaren berriazko baliabide gisa, prestakuntza soziopertsonala egiten da Alaiz Kolektiboaren eta Gaztelan bidez, laguntza teknikoaren kontratu baten bidez. Parte-hartzaileei taldekako esku-hartzea egiten zaie. Guztira, 132 ordu egin ziren gizarte-trebetasunetan, eta 149, eguneroko trebetasunetan eta hainbat gairi buruzko saio monografikoetan: sukaldaritza, estresa eta erlaxazioa, informatika, lehen laguntzak, gorputz-jarrera berreztea, serigrafia kamisetetan, *mindfulness*. Halaber, hainbat kultur irteera egin ziren.

NAFARROAKO GOBERNUKO PRESTAZIOAK ESKURATZEA

Auzo Unitateak, halaber, Iruñeko pertsonen 2016an emaniko prestazioen kudeaketaz arduratu ziren: Kotizazio gabeko erretiro-pentsioa; kotizazio gabeko baliaezintasuneko pensioa; gizarteratze-errenta/errenta bermatua; eta ezohiko laguntzak gizarteratzeko, familia-esparruan mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko eta desgaitasuna dutenentzat.

KOTIZAZIO GABEKO ERRETIRO-PENTSIOA

65 urtetik gorako 541 lagunek jaso zituzten Iruñean erretiro horiek; guztien % 66 emakumeak izan ziren. Pertsona horiek diru-sarrera apalagoak dituzte urte bakoitzerako ezarria dagoen erretiroaren zenbatekoa baino (368,90 euro 14 ordainketatan, 2016an). Haien familiek ezin dute gainditu Estatu osorako urtero ezartzen den muga ekonomikoa. Kotizazio gabeko erretiro-pentsiorik gehienak dituzten Auzo Unitateak *Milagrosa (74)*, *Arrotxapea (65)* eta *Txantrea (62)* izan ziren.

KOTIZAZIO GABEKO BALIAEZINTASUNEKO PENTSIOA


Onuradunek erretiro-pentsiodunen antzeko egoera ekonomikoa dute, % 65eko edo hortik gorako desgaitasuna aitortua izateaz gainera. 2016an, 406 lagunek zuten desgaitasun hori aitortua Iruñean, baina, generoari dagokionez, aldea askoz ere txikiagoa da kotizazio gabeko erretiro-pentsioetan baino: % 49 gizonak izan ziren, eta % 51, emakumeak. Berriz ere, Txantreako (96) eta Arrotxapeko (76) auzo-unitateek izan zituzten modalitate honetako pensiorik gehien.

GIZARTERATZE-ERRENTA/ERRENTA BERMATUA

2016an, gizarteratze-errentako edo errenta bermatuko 7.318 eskaera gauzatu ziren (% 56, emakumeek eskatuak, eta % 44, gizonak). Adinaren arabera, 18-34 urte arteko emakume titularrek aurkeztu zituzten eskaerarik gehien (% 34); gizon titularren artean, adin-profila nabarmen izan zen handiagoa, 45etik 65era urte bitarteko taldea izan baitzen ugariena (% 44,5).

Kontuan hartuta pertsona onuradunak familietan koka daitezkeela, jotzen da onuradunak guztira 15.817 pertsona izan zirela egiazki; haietatik, % 31 adingabeak izan ziren. Berriz ere, Arrotxapean (1.373), Milagrosan (1.162) eta Txantrean (931) izan ziren onuradunik gehienak, baita adingabe onuradun gehienak ere. Nazionalitateen arabera, pertsona titularren ia % 67 espainiarrak izan ziren; gero, oso urrun, errumaniarrak (% 6), marokoarrak (% 4) eta nigeriarrak (% 3).

Gehien errepikatzen diren nazionalitateak, gutxienez guztien % 1 direnak.



2016an, % 7 igo zen GE/EBren pertsona titularren kopurua, 2015eko gizarteratze-errentaren aldean, eta, bana beste, jendeak % 31 diru gehiago jaso zuen. Bereziki, Mendillorriko gorakada izan zen nabarmena (% 23,48 pertsona gehiago, eta % 52 gehiago ordaindu zen guztira), baita Donibanekoa ere (% 15,25 pertsona gehiago, eta % 43,33 gehiago ordaindu zen guztira), ez baitira identifikatzen egoera zaugarriko biztanleria duten auzo gisa.


EZOHICO LAGUNTZAK

Ezohiko laguntzen eskaera gehienak Arrotxapean, Sanduzelain, Milagrosan eta Buztintxurin egin ziren. Bana beste, pertsona bakoitzak 818,66 euro jaso zituen; 2015ean, berriz, 780 euro.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzua	Gizonak	Emakumeak	Guztira, oro har	Ezohiko laguntzak, ordaindua guztira
BUZTINTXURI	24	62	86	61.232,77
ALDE ZAHARRA	10	13	23	18.905,14
TXANTREA	25	55	80	63.453,99
ZABALGUNEA	10	25	35	36.147,23
ERMITAGAÑA / MENDEBALDEA	8	18	26	40.188,42
ETXABAKOITZ	14	28	42	22.830,77
ITURRAMA	3	8	11	12.993,86
MENDILLORRI	9	68	77	66.675,76
MILAGROSA - AZPILAGAÑA	23	66	89	81.632,88
ARROTXAPEA	34	107	141	110.923,76
SANDUZELAI	38	76	114	75.787,46
DONIBANE	5	12	17	15.852,18
GUZTIRA	203	538	741	606.624,22

Gizon onuradunen % 47 45etik 64 urte bitarteko adin-taldean zeuden, eta emakumeen % 39, berriz, 35 eta 44 urte artean zeuden.

Gizarteratze-errenta/Errenta bermatua eta ezohiko laguntzak jasotzen dituzten pertsonen kopuruak markatzen du Iruñeko biztanleriaren zaugarritasun ekonomikoaren profila, eta auzoen araberako banaketa ere bai.



GIZARTERATZEKO LAGUNTZAK

Prestazio mota hori ez dago oso zabalduta, baina kualitatiboki bazterketa-faktorea duten oso profil zaugarriari dagokie (hau da, osasun mentaleko arazo larriak, behar bezalako familia-laguntzarik eza, laguntza-sarerik eza, prekarietate ekonomikoa eta/edo iraupen luzeko langabezia-egoerak). 2016an, 13 aitortu ziren, auzoz auzo honela banatuak: Iturrama (ia % 31), Txantrea (% 23), Zabalgunea, Ermitagaña, Milagrosa eta Sanduzelai. Hartzaileen % 31 emakumeak izan ziren, eta % 69, gizonak.

LAGUNTZAK PERTSONA DESGAIUENTZAT

Lanera bideratzeko zentro batean hasten diren pertsonentzat dira, hots, % 33 eta 64 arteko desgaitasuna aitortua dutenentzat, berezko diru-sarrerarik ez badute edota diru-sarrerak kotizazio gabeko baliaezintasuneko pentsioa baino txikiagoak badira. Iruñean, 39 pertsonak jaso zituzten. Laguntza horiek jaso zituzten pertsona gehienek auzoa Txantrea izan zen, eta, gero, Alde Zaharra, Arrotxapea eta Iturrama. Sexuaren arabera, onuradunen % 64 emakumeak izan ziren, eta % 36, gizonak.

LAGUNTZAK FAMILIA-ESPARRUAN MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONENTZAT ZAIATZEKO

III. mailako (menpekotasun handia), II. mailako (menpekotasun larria) edo I. mailako (menpekotasun moderatua) menpekotasun egoeran daudenentzako laguntzak dira, betiere arta familia-ingurunean jasotzen ari direnentzat. 2016an, 2.984 pertsonak jaso zituzten era horretako laguntzak; haietatik, % 68 emakumeak izan ziren, eta % 32, gizonak. Arrotxapeak izan zituen hartzailearik gehien (% 13), eta, gero, Milagrosak (% 12) eta Txantreak (ia % 12). Ondoren, oso hurbil, Zabalgunea (% 11) eta Donibane (% 10) datoz.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzua	G	E	GUZTIRA
BUZTINTXURI	29	71	100
ALDE ZAHARRA	24	88	112
TXANTREA	108	249	357
ZABALGUNEAK	83	255	338

ERMITAGAÑA / MENDEBALDEA	84	148	232
ETXABAKOITZ	39	63	102
ITURRAMA	85	179	264
MENDILLORRI	45	124	169
MILAGROSA - AZPILAGAÑA	118	248	366
ARROTXAPEA	135	253	388
SANDUZELAI	96	157	253
DONIBANE	99	204	303
GUZTIRA	945	2039	2984

Hartzaileen ia % 40 (1.193) 80 eta 94 urte artean zeuden, eta, ondotik, 45 eta 64 urte artekoak (411 lagun/ % 14); dena den, egia esan, 65 urtetik gorakoen (% 58) eta 65 urtetik beherakoen (% 42) ehunekoak ez daude elkarrengandik oso urrun. Gainera, 18 urtetik beherako 131ek prestazioa jasotzeko eskubidea zuten, menpekotasuneko egoeran baitzeuden (% 4,39).

ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK

Oinarrizko mailaren osagarri (Oinarrizko Laguntza), Iruñeko Udalak bestelako laguntza-bitartekoak ere baditu, Auzo Unitateetako programekin eskuz esku lan egiten dutenak.

GIZARTE ENPLEGU BABESTUA

Nafarroako Gobernuarekin batera, Iruñeko Udalak programa bat finantzatzen du, gizarte-zailtasunean dauden pertsonak aldi baterako kontratatutara bideratua; era berean, pertsona haien gaikuntza pertsonala sustatzen du bai enpleguaren bidez, bai kotizaziopeko laguntza-sisteman sartzearen bidez. Urtebeteko lana eskaintzen die lan-merkatura sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen, gehienez ere urtebeterako (sei hileko kontratuak, beste sei hilabetez luzagarriak), banakako gizarteratze-ibilbide baten bidez. Hona hemen programaren hartzaileak: prestakuntza eskaseko gazte eta helduak; gutxiengo etnikoetako kolektiboetakoak; egoera ekonomiko txarra duten eta gizarteratzeko edo lanera bideratzeko prozesuetan ari diren pertsonak; partekatu gabeko familia-ardurak dituzten emakumeak, lana eta familia bateragarri egiteko zailtasunak dituztenak gainera; etab.

Programa 194 bat lagunekoa talde batek –kontratututako peoiek, lantaldeetako arduradunek eta ofizialek, eta talde teknikoak– osatua zegoen 2016an, eta bederatzi lantaldeetan jardun zuten: obrak, soldadura, pintura, garbiketa eta atezaintza, ibaiak zein mintegia mantentzeko lanak, jostintza eta jantzigintza, tapizgintza, udal-jantokia, eta koadernaketa eta serigrafia. Zeregin horietako bakoitzean, lantalde bat edo batzuk egon daitezke. Taldeen buru ofizial bat egoten da, hura baita prestakuntza ematen duen pertsona. Lantalde bakoitzak arduradun bat dauka,

laguntzarako langileez gain, hala nola gizarte-langileak, arkitekto teknikoa, administrariak eta programa-arduradun bat.

Programa udal-dinamikan euskarritua dago, hala gizartean bazterturik dauden hiriko pertsonak kontratatzerakoan nola Udaleko alorretatik eskatutako lanak eta enkarguak egiterakoan. 2016an, Udaleko gizarte-zerbitzuetatik zetozen 166 pertsonari egin zitzairen lan-kontratua, programa horren bidez.

Hainbat lan egin zituzten, hala nola etxebizitzak zaharberritzeko lanak, ikastetxeetako erreformak edota Sanduzelaiko patinodromoa konpontzeko lanak, besteak beste. Halaber, adinekoendako apartamentuak margotu zituzten, bai eta Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzuak artatzen dituen emakumeendako apartamentuak ere, eta, era berean, hainbat liburutegi eta ikastetxetako ikasgelak eta pasabideak, eta Iruñeko Udal Agiritegikoak ere bai. Soldadura lantaldeak hegaztiendako aterpe bat egin eta jarri zuen Taconerako zoo txikian, eskudel bat Joaquín Maya Musika Eskolarako edota bizikletak aparkatzeko euskarri bat Bernat Etxepare I.P.an.

Joskintza eta Jantzigintza lantaldean aritutakoek zorroak egin zituzten zezen-plazako presidenteen aulkietarako; mandarrak, etxeko erantzukidetzari buruzko lantegietarako; eta 164 lan-jantzi, San Jose zentroko langileentzat. Tapizgintzakoek Plaza de la Cruz BHIko ekitaldi-aretoko 212 besaulkiak tapizatzeke lanak bukatu zituzten, eta, horrez gain, Nafarroako Jauregiko Areto Isabeldarreko 14 aulkiak ere tapizatu zituzten, eta beste 17 sofa edo besaulki Udalaren lekuetarako, ikastetxe eta egoitzetarako (El Velgelerako, adibidez). Kodernaketa eta Serigrafiak lantaldean kontratatutakoek 46.000tik gora txartel egin zituzten Gizarte Ekintzako eta Komunitate Garapeneko Alorreko zerbitzu eta programetarako; 9.000 gida genero-indarkeriaren aurka; ia 6.000 foileto eta triptiko; eta 6.500etik gora berdintasun-gida.

Gainerako bi lantaldeen artean, Ibaikoak, ohi denez, Argaren ibaiertzak garbitzen lagundu zuen, eta hainbat laguntza-lan egin zituen lorezaintzan zein hosto-bilketan, udazkenean. Garbiketakoak, berriz, 47 etxebizitzatan esku hartu zuen, bai eta zenbait udal-instalaziotan ere, hala nola Txantreako nahiz Milagrosako gizarte-ekimeneko zentro komunitarioetan, Irujo Etxean, Gizarteratzeko eta Laneratzeko Taldearen egoitzan, eta Gizarte Enpleguko Programaren beraren egoitzan zein Hirigintzako eta Hiri Kontserbazioko alorretako bulegoetan.

EMAKUMEENDAKO UDAL LAGUNTZA ZERBITZUA (EULZ)


2016an, EULZek **bere jarduera hasi izanaren 25. urtemuga** ospatu zuen; laguntza ematen die, beren egoera dela-eta, babes eta laguntza sozial, juridiko eta psikologiko berezia behar duten emakumezkoei. Horren baitan, lehentasunezkoak jotzen dira hala genero-indarkeriaren biktimak babestu eta bere onera ekartzera bideratutako esku-hartzeak nola indarkeriazko

egoerei aurrea hartzera bideratutakoak. 2016an, 593 kasuk jaso zuten arreta; haietatik, 306k lehen aldiz jo zuten (299 emakume eta 7 gizon). Beste 290ek lehengo urteetako espedienteak zituzten jada. Guztira, 2.502 banakako arreta egin ziren, haietako 13 urgentziakoak.


Banakako artak EULZaren agendako kasuen % 75 izan ziren. Gainerakoak koordinazio-bilerak izan ziren, hala barnekoak, nola beste profesional eta entitate batzuekin, bai eta lan-taldeetan parte hartzea ere (310 bilera guztira). Era berean, bestelako jarduerak ere egiten dira, hala nola guardiak, *kasuko gestioak*, epaitegieta joatea, etab. (386 guztira).

Artatutako kasu berrietatik, % 49,19 genero-indarkeriako kasuak izan ziren, eta, haietatik, % 39,80raino ere harreman afektibo baten testuinguruan gertatu ziren. Gainera, arten beste % 27,19 harreman afektiboetako desoreken edo hauste-prozesuko zailtasunen aurrean gertatu ziren. Beraz, ondorioztatu daiteke arten % 77 baino gehiago harremanei loturiko arazo jakin batzuei zegozkiela, ageriko indarkeria zegoelako edo bikotearen harremanean gatazka larriak zeudelako.

Arlo publikoko genero-indarkeriari dagokionez, sexu-jazarpenak, lan-bazterketak eta sexu-erasoek jarduketaren % 54 eragin zuten. Gainerako % 46a emakumeen salerosketa kasuak izan ziren, sexu-esplotazioari begira.



EULZek berezko baliabide bat dauka familietan intentsitate handiko esku-hartzeak egiteko, hots, *Eman aukera zeure buruari*. 2016an, 52 emakume eta 75 adingabe artatu zituen. Zerbitzua gizarte-zailtasunean dauden emakumeei eta haien seme-alabei zuzendutako programa bat da, betiere gizarte eta hezkuntza arloetan laguntza eta esku-hartze integrala behar dutelarik. Zerbitzua etxean eman daiteke edo Udalak horretarako dituen 17 apartamentuetako batean. 2016an, bana beste, % 90,20 erabili ziren.



2016an, EULZk bere jarduera hasi izanaren 25. urtemuga ospatu zuen. Zerbitzuak indarkeriaren biktima diren emakumeen egoeraz sentsibilizatu nahi du jendea, eta nabarmendu zeinen garrantzitsua den norberak eta gizarteak estrategiak abian jartzea indarkeriari aurrea hartzeko eta profesionalak prestatzeko. Lan hori zabaltze aldera, hiru jarduketa-ildotan dago egituratua:

Zabalkunde-jarduerak: 700 agenda baino gehiago egin ziren zerbitzuari buruzko motiboekin; jendaurreko agerraldiekin batera, zerbitzuaren irudi berria diseinatu, eta Ainara Verak bideo bat sortu zuen, zerbitzuaren erabiltzaileen lekukotasunak biltzeko. Urtea bukatzeko, Demode Quartet taldearen kontzertua egin zen, eta emakumeen kontrako indarkeriaren gaia jorratzen zuen abesti bat estreinatu zuen zerbitzuarentzat.

Sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduerak: EULZek *Iruña molde femeninoan* izenburuko argazki-lehiaketaren epaimahaian parte hartu zuen, Kulturako Alorrarekin eta Civivox sarearekin batera; narrazio-saio bat antolatu zuen Kondestable civivoxean, Oihulari Klown taldeko Virginia Imazen eskutik; eta *Entre mujeres* eztabaida-taldearekin lan egin zuen, emakumeak ahalduntzeko lantegietan, besteak beste.


Prestakuntza-jarduerak: *Esku-hartzea emakumeen aurkako indarkerian: ikuspegi psikosoziala, hedabideak eta arlo judiziala* izenburuko jardunaldia egin zen profesionalentzat. Era berean, jardunbide egokiak trukatzeko topaketa bat egin zen Gizarte Ekintzako eta Komunitate Garapeneko Alorreko profesionalen eta *Emaoizu zeure buruari aukera bat* taldearen artean.


HAUR ETA NERABEENDAKO LAGUNTZA TALDEA

Programa espezializatu horrek familian babesgabetasun moderatuko egoerak pairatzen dituzten Iruñeko haur eta nerabeak artatzen ditu, eta, era berean, bizitzan, gizartean eta eskolan moldatzen ez direlako sintoma serioak agertzen dituzten 18 urte arteko haur eta gazteak, delituzko jarrerak garatzeko arrisku esanguratsua dutela uste izatekoa delako. Haur babesgabetasuneko arazoak garatzeko arrisku handia dituzten familiak ere barnebiltzen dira (hau da, babesa jaso duten familiak izanik, seme-alaba bat izanen edo izan dutenak; osasun mentaleko arazo larriak dituzten guraso laguntzarik gabeak; edo toxikomania-arazoak dituzten pertsonak izanik, guraso izanen direnak; edota guraso nerabeak...). Eskuz esku lan egiten du Oinarrizko Laguntzako haur eta familiei laguntzeko programarekin, programa horrek bideratzen baititu talde honetara babesgabetasuneko egoerak.

2016an, 120 familia artatu ziren, eta 219 adingabe; halaber, 2015ean baino % 58 espediente gehiago abiarazi ziren. Arten kopurua handitzearekin batera, zerbitzurako profesionalen kopurua ere igo zen, 2016an bost lagunetan handitu baitzen.


2016an irekita zeuden kasuetatik, % 31 2016 aurreko jarduketetatik zetozen. Espediente gehien irekitako auzoak Mendillorri, Txantrea, Milagrosa eta Arrotxapea izan ziren, eta esku-hartze gehieneko adin-tartea, 5etik 15era bitartekoa, guztien % 68 izan baitzen.





Programa horren barnean, bestalde, Familietan Esku Hartzeko Zerbitzua dago, etxean bertan egiten dena. 2016an, artatutako 120 familietatik, 47k hezkuntza arloko esku-hartze hori ere jaso zuten.

Familietan Esku Hartzeko Zerbitzuaren helburuen banaketa, 2016an



ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

2016an, 1.207 lagunek parte hartu zuten Iruñeko Udalaren Enplegurako Prestakuntza programan; hau da, ia 120 lagun gehiago izan ziren 2015ean baino, urte hartan 1.088 izan baitziren. Enplegua lortzeko zailtasun erantsi bat duten Iruñeko pertsonak gizarteratu eta laneratu daitezzen sustatzea da ekintzen ardatz nagusia. Hartara, pertsona horien gaikuntza eta lan-merkatuak balioesten dituen lanbide-, gizarte- eta norberaren gaitasunak garatzen dira.

Enplegurako Prestakuntza programaren datu orokorrak

Programa	Parte-hartzaileen kopurua
Birgaitze-lanetako ELE (2016/06/01-2016/11/30)	60
Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak artatzeko ELE (2015/10/15-2016/04/15)	15
Lorezaintza, soldadura eta iturgintzako prestakuntza-programa (2016/11/09-2017/05/08)	42
Menpekotasuneko prestakuntza-programa (2016/10/01-2017/03/31).	15
GLT-Lan Bitartekotzako Udal Zerbitzua	968
Interes orokorreko eta gizarte intereseko lanak	17
Langabetuendako Ikastaroak	75
Espetxeko prestakuntza-ekintzak	15
GUZTIRA	1.207

Enplegurako Prestakuntza Programaren alderaketa

	2012	2013	2014	2015	2016
Enpleguko Lantegi Eskolak	117	174	117	117	75
Berezko finantzaketa duten prestakuntza-programak					57
GLT-Lan Bitartekotzako Udal Zerbitzua	400	551	660	836	968
Espetxeko prestakuntza-ikastaroak eta lantegiak	97	116	113	116	90
Interes orokorreko eta gizarte-intereseko lanak	24	22	21	19	17
Onuradunak guztira	700	863	911	1.088	1.207

ENPLEGUKO LANTEGI ESKOLAK

Enpleguko Lantegi Eskolak programa mistoak dira, prestakuntzakoak eta enplegukoak. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak finantzatzen ditu, eta Iruñeko Udalak zein Europako Gizarte Funtzak finantzaketan lagundu eta abiatzen dituzte. Ikasleek, prestakuntza-kontratu baten bidez, prestakuntza teoriko-praktikoa jasotzen dute, eta zeharkako arlo batzuetan trebatzen dira, hala nola funtsezko gaitasunetan, gizarte-prestakuntzan eta prestakuntza pertsonalean, enplegua modu aktiboan nola bilatu, etab.ean. Enpleguko Lantegi Eskolek, gainera, laguntza horren zati bat itzultzen diote hiriari, hirian *gizarte-ekintza* eginez.


2016an, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak deialdi iragankor bat atera zuen, programei jarraipena eman edo birmoldatzea ebaluatzen zuen bitartean. Udalaren Enpleguko Lantegi Eskolek 75 parte-hartzaile izan zituzten une jakin batzuetan. Batetik, apirilean, Mendekotasun-egoeran dauden pertsonakartzeko IV. Enpleguko Lantegi Eskola itxi zen (15 leku), adinekoendako udal-apartamentuetan gizarte-ekintza eginez. Bestetik, Birgaitze-lanetako Enpleguko Lantegi Eskolak, lehen aldiz, 6 hilabete iraun zuen, eta, horregatik, denbora laburragoan egin behar izan ziren prestakuntza eta gizarte-ekintza. 2016an, Birgaitze-lanetako Enpleguko Lantegi Eskolak hainbat lan egin zituen, hala nola aterpe-premia zutenendako etxebizitzak erabat birgaitzeko lanak; Iruñeko harresiak mantendu eta zaintzeko lanak; eta abar.

Lantegi Eskolak sendotze aldera, Udalak berezko finantzaketako bi esperientzia garatzea erabaki zuen. Ikasleek enpresetan lan eginez edo haietan lanez bestelako praktikak eginez ikasten dute. Prestakuntza-programa horiek lorezaintza, soldadura eta iturgintza dira. Zehazki, 42 lagun aritu ziren, 2015ean Arantzadiko Lantegi Eskola izaniko tokian. Horrez gain, mendekotasuneko prestakuntza-programan 15 lagun aritu ziren.

IZENA	ESPEZIALITATEAK	PROFILA	LEKU-KOPURUA
Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak artatzeko IV. Enpleguko Lantegi Eskola	Menpekotasun-egoeran dauden pertsonendako arreta gizarte-erakundeetan	Helduak	15
Birgaitze-lanetako ELE	Eraikinen berritze- eta askotariko mantentze-lanak, Kontserbazio- eta askotariko mantentze-lanak harritan, Berriztatze- eta askotariko mantentze-lanak zuretan, eta Barrualdeak mantentzeko askotariko lanak.	16-24 urte bitarteko gazteak	60
Arantzadi prestakuntza-programa.	Lorezaintza, soldadura eta iturgintza	16-24 urte bitarteko gazteak	42
Mendekotasuna dutenendako prestakuntza-programa.	Menpekotasun-egoeran dauden pertsonendako arreta gizarte-erakundeetan	Helduak	15

GIZARTERATZE ETA LANERATZE TALDEA (GLT)

Taldeak xede du lana eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonen eta aldi berean bazterturik gelditzeko arriskuan edo bazterturik daudenek beren enplegarritasunahanditzea, gizarteratze aldera. Prestakuntzaren bidez eta lan-orientabidearen bidez egiten du, enprekin nahiz partikularrekin bitartekaritza egiteaz gain. 2016an, Gizarteratze eta Laneratze Taldeak, guztira, 968 espedienteak zituen indarrean, eta, haietatik, % 24 alta berriak izan ziren.



Espediente berrien erdiak baino gehiago lau auzootatik zetozen: 46, Arrotxapetik; 42, Etxabakoiztik; 39, Txantreatik, eta 36, Milagrosatik.

Hona hemen 2016an zehar zerbitzuak garatutako prestakuntza-ekintzen helburuak: gaitasun pertsonalak garatzea enplegua bilatzeko; IKTeen bidez enplegua modu aktiboan bilatzeko gaitzea; eta gaitasun profesionalen garapena. Nabarmentzekoak dira:

- Mentoring eta coaching laneratzeko, hau da, AMEDNarekin elkarlanean egindako proposamena, eta la Caixaren Gizarte Ekintzak finantzatua. Zehazki, 15 emakume dira, eta hainbat enpresatako 10 mentore zituzten.
- Alzheimerdunak eta beste dementzia batzuk dituztenak artatzeko prestakuntza, AFANekin eta Gaztelan Fundazioarekin elkarlanean; 13 emakume eta 2 gizon aritu ziren.
- Arrandegi-lanak E. Leclerc-ekin, eta lanak Actima Consultoría-rekin, 13 pertsonak egindakoa.
- Prestakuntza garbiketa industrialetan, EULENekin elkarlanean (15 pertsona).


Taldean, halaber, Gizarte eta Lan arloko Bitartekaritzarako Udal Zerbitzua dago sartua. Hautapen-prozesuak egiten ditu GLTko erabiltzaileak kontratatzeko, urteko zenbait unetan eta hainbat postutarako. 186 enplegu-eskaintza jaso zituen zuzenean, 301 lanposturako. Eskaintzen bidez, 153 laneratze egin ziren, eta eskainitako postuen % 50,83 bete ziren, bana beste; hau da, 2015ean baino % 40 gehiago, urte hartan 109 laneratze lortu baitziren.

FAMILIENDAKO ETXEKO ZERBITZUAREN ESKAINTZA-KOP.		Eskaintzak
Postuak		
Mendeko pertsonen zaintza	78	78
Barnekoak	42	45(+asteb)
Etxeko garbiketa-zerbitzua	9	9

Haurren zaintza	8	8
GUZTIRA	137	140
BESTELAKO ENPLEGU ESKAINTZAK:		
Gerokultorea/Etxeko arreta/Familia-langilea	7	20
Garbiketa-langilea/Kristalaria/Logelako zerbitzaria	7	39
Ostalaritza (zerbitzaria, sukalde-laguntzailea, sukalde-garbitzailea, hoteleko harrera, etab.)	6	6
Eraikuntza: peoiak, mantentze-lanak, zurgina	2	2
Jendeari arreta egitea, saltzaileak, kutxazainak, arrain-saltzaileak	6	40
Langileak: nabea, trokelgileak, hotz-teknikariak, soldatzaileak, garbitegiko peoia	9	28
Gidariak, txoferrak, orgatila-gidariak, mekanikariak, zaintza-laguntzaileak, etab.	6	12
Beste eskaintza batzuk: postontzietako banatzailea, banatzailea, mekanikaria, lorezaina, etab.	6	14
GUZTIRA	49	161
ESKAINTZAK ETA POSTU ESKAINIAK GUZTIRA	186	301

Gizarte eta Lan arloko Bitartekaritzarako Udal Zerbitzuak (GLBUZ) zuzenean kudeatutako laneratzeez gain, GLTk gaitasunetan prestatzeko ekintzetatik eta tekniketan esku hartzetik heldu diren beste laneratze batzuetan laguntzen du, Gizarte Enplegu Babestuko deialdietako eta interes orokorreko eta sozialeko obretako lanpostuak kudeatze aldera.

ZENBAT LANERATZE GUZTIRA:	2016	2015
GLBUZ zuzenekoak	153	
Eskumenetarako prestakuntza-ekintzak (Amedna, AFAN, Leclerc edo Eulen).	26	
Menpekoak etxean artatzeko prestakuntza-ekintza.	13	
GEB (hauteskundeetarako kontratazioak barne) eta interes orokorreko eta sozialeko obrak.	24	
GUZTIRA	216	179



INTERES OROKORREKO ETA GIZARTE-INTERESEKO LANAK

Udalak, halaber, langabeak kontratatu zituen zuzenean interes orokorreko eta gizarte-intereseko lanak egin zituzten (Nafarroako Gobernuak Toki Entitateei diru-laguntzak emateko onetsitako deialdiaren barruan). Helburua da langabeak kontratatzea, eta horrela haien enplegarritasuna hobetzea, lanerako gaitasunak emanda.

2016an diruz lagundutako bi proiektuak gauzatzeko, 17 pertsona kontratatu ziren lehentasunezko zatitako kolektiboen artean (30 urtetik beherakoak, 50etik gorakoak, langabezian luzez egondakoak, etab.). Pertsona horien bidez, Errotazarko etxabea egokitzeko lanak hasi ziren, *Labaderoak* izeneko aldean, Udalaren gizarte-zerbitzuak handitze aldera, eta, era berean, seinaleztapen horizontala mantentzeko zerbitzua jarri zen berriro indarrean, baita nekazaritza-zerbitzu osagarriak ere Elkarkiderekin elkarlanean.

LANGABEEI LEHENTASUNEZ ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROK

Enplegurako Prestakuntza Zerbitzuak lanerako prestakuntza-jarduketak egiten ditu bereziki langabeentzat, eta helburu du horiek lanera bideratzea. 2016an, guztira 75 pertsonak parte hartu zuten 1. eta 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiria lortzera bideratutako bost ikastaroetako batean (edota helburu horretara bideratutako moduluetan). Hiru urteko lehen sei hilekoan egin ziren, eta bi, bigarrenean; prestakuntzaren berezko edukiez gain, lantegi tematikoak egin ziren, bai eta talde zein banakoendako orientabide-saioak ere.

Espezialitatea	Ordu-kopurua	Hasierako data Bukaerako data	PK Maila	Leku- kopurua
Laguntza-jarduerak mintegi, lorategi eta lorategi-zentroetan (PZ osoa)	250	2016/04/01- 2016/06/14	1	15
Oinarrizko zereginak jabetxe eta tabernetarako (PZ osoa)	210	2016/04/04- 2016/06/03	1	15
Gizarte eta osasun arloetako arreta mendeko pertsonen gizarte-erakundeetan (PZ beste modulu batzuk osatutako pertsonentzat).	100	2016/05/03- 2016/05/31	2	15
Oinarrizko zereginak jabetxe eta tabernetarako (PZ osoa)	210	2016/10/03- 2016/12/15	1	15
Gizarte eta osasun arloetako arreta mendeko pertsonen gizarte-erakundeetan (PZ beste modulu batzuk osatutako pertsonentzat).	130	2016/09/28- 2016/11/16	2	15
GUZTIRA	900	-	-	75

EKINTZAK NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUAREKIN BATERA FINANTZATU ZIREN.

2015etik, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak gaitasuna eman zion Udalari Sukaldeko Oinarrizko Zereginen 1. eta 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak emateko Fiteroko monasterioaren kaleko udal-lokaletan. 2016an, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak ez zuen finantzatu Udalak sukaldaritza-ikastaroetarako egindako proposamenak, 2015ean gertatu zen bezala.

ESPETXEKO EMAKUMEEN MODULUKO LANTEGIAK

2016an, Iruñeko Udalak prestakuntza-ekintza bat antolatu, koordinatu eta finantzatu zuen, Iruñeko espetxeko emakumeen modulan. Jantzigintza- eta moda-lantegia 15 parte-hartzaileentzat egin zen, ekainetik abendura, eta sei hilekoan, guztira, 86 ordu eman ziren.

PRESTAKUNTZA-SAIOEN PROGRAMA, GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO IBILBIDEAK EGITEN ARI DIREN PERTSONENTZAT

Udalak, aholkularitza teknikoko kontratu baten bidez, prestakuntza-ekintzak gauzatzen ditu, Gizarte Ekintzako eta Komunitate Garapenerako Alorreko programa ezberdinetan gizarteratzeko eta laneratzeke ibilbideak egiten ari diren pertsonen berariaz zuzenduak. Helburua pertsona horien gaitasuna handitzea da, autonomoagoak izan daitezen, eta, bide batez, laguntza ematea, gizarteratu eta lanera bidera daitezen.

Hainbat arlo jorratzen dira, hala nola eguneroko bizitzari zuzendutako trebetasunak, gizarte-trebetasunak, lanbide aurreko prestakuntza-ekintzak, gaitasun profesionalerako eta laneratzerako zuzendutako ekintzak, etab. Prestakuntza-ekintzak banakoak edo taldekoak izan daitezke, eta lanbide ezberdinen esku hartzea gauzatzen da, udal-langile eta -talde batzuen koordinazioa tarteko.

2016an egindako prestakuntza-ekintzen artean, honako hauek aipa daitezke: enplegua modu aktiboan bilatzeko ikastaroak, ekintzailetza-tailerrak, prestakuntza soziopertsonala, etxeko lanetarako ikastaroak, gizarte-trebetasunei buruzko ikastaroak, etab. Laguntza teknikoaren kontratu baten bidez kudeatu ziren; 2015an, Alaiz Kolektiboak eta Gaztelan Fundazioak osatutako ABEEri esleitu zitzaion kontratua, eta 2016an luzatu egin zen.

BAZTERKETA LARRIKO PERTSONAK ARTATZEKO PROGRAMAK

ETXERIK GABEKO PERTSONAK ARTATZEKO ZENTROA


Etxerik gabeko Pertsonak Artatzeko Zentroak (Trinitarios, z.g.) hirian *ibiltari* dabilzan pertsonendako aterpetxe bat dauka (25 leku), eta, horrekin batera, jantokia, lanera bideratzeko zentro bat, arropa-garbitegia eta Iruñean erroldaturik egon eta gizarte-bazterketa jasaten duten pertsonak iraupen ertaineko egonaldian hartzen dituen programarako gunea (*Erroldatuak*, 25 leku gehiago). Zentroan, ostatu, higiene- eta elikadura-arloko premiak asetzen dira, aholkularitza eskaintzen da, eta erabiltzaileak lanera bideratzeko tailerrera joan, eta garbiketa- eta jantoki-lanak egin behar dituzte.

50 tokiak beteta egoten dira urteko ia egun guztietan, eta neguan toki gehiago eskaintzen dira, hotzaren aurkako protokoloak bide ematen duelako programan ohiko eran sar ez daitezkeen lagunak artatzeko (baldintzak betetzen ez dituztelako, zehapena jasota daudelako edota egonaldi-denborak agortu zaizkielako). Horri lotutako hirugarren programa *Arreta, kolean* da, etxerik gabeendako laguntza- eta informazio-lanak egiteko.

2016an, 1.834 lagun artatu zituzten zentroan. Artatutako pertsona askok programa batean baino gehiagotan parte hartzen dutenez, guztira jende gutxixeagori egin zitzaizen arta: 1.559. Horietatik, 178 soilik izan ziren emakumeak (% 11,41); dena den, esan behar da 2015ean baino % 1 gehiago izan zela. 2016an, 159 gautan abiarazi zen hotzaren aurkako protokoloa. 2015ean, aldiz, 116 gautan.

Hiru programa nagusietako datuei erreparatuta, 2016an, 60 nazionalitatetako pertsonek jo zuten zerbitzura.

Erabiltzaileen banaketa, jatorriaren arabera



Ekintza horiek sendotze aldera, eta une jakin batzuetarako, hiriko ostatuetaarako txartelak banatzea dago aurreikusia, ostalaritza-establezimenduetan ostatu hartzeko programaren bitartez.

2016an, 150 familiak jaso zuten baliabide hori; 246 lagun desberdin izan ziren guztira. Baina ostatu-gau gehiago izan zen ostalaritza-establezimenduetan: 1.271. Laguntzak ere aurreikusiak daude programan, Nafarroako beste leku batzuetara edo probintzia mugakideetara joateko, doako autobus-txartelen bidez (977, 2016an).

Pobrezia eta Gizarte Kohesioa programa	2013	2014	2015	2016
Pasadizokoak	1.568	1.524	1615	1.359
Erroldatuak	71	65	64	65
Arreta, klean	164	127	141	137
Hotzaren aurkakoa	209	479	206	275
GUZTIRA	2.007	2.445	2.026	1.834
Ostatuak jasotzen dituzten pertsona desberdinak	351	250	250	246
Autobus-txartelak	996	1.020	1005	977

Esan behar da, 2016an, zerbitzua pasadizoko gutxiagok erabili bazuten ere, ostatu-gauak igo zirela; beraz, arreta integralagoa eman zen, zerbitzura jotzen duten pertsonen behar zehatzei erantzunez.

2016an, Iruñeko Etxerik gabetasunaren Behatokiak argitaratutakobuletinaren hirugarren zenbakia egin zen. Udalaren eta Xilema Fundazioaren argitalpen bat da, eta, estatistika-datuen bidez, etxegabeen egoera zertan den aztertzen du European eta Espainian, Iruñearekiko alderaketa eginda. 2016an, aldizkariaren gaia *etxerik gabeko pertsonak eta generoa* izan zen, baina ez zen argitaratu.

OSCUS 0,50 UDAL-JANTOKIA

Iruñeko Udalaren udal-jantokia Navarrería kaleko 31n dago, eta 204 lagun desberdin artatu zituen. 2015eko erdialdera arte, jantokiak 50 leku zituen –eta beste hiru ere eskaini zitezkeen–, baina, zerbitzuaren kontratazioa aldatu eta gero, derrigorrezko muga hori kendu, eta behar duten pertsona guztiei eskaintzen zaie zerbitzua, gizarte zerbitzuetatik bideratutakoei betiere. Erabiltzaile bakoitzeko kostua, bazkari edo afari bakoitzean, 0,50 euro da.

Aurrez aurreko zerbitzua diru behar larrian dauden 18 eta 64 urte arteko pertsonen zuzendua dago. Baina adingabeek ere zerbitzua jaso dezakete. 2016an, zerbitzuak 168 helduri eta 36

adingaberi lagundu zien. 2013ean goia jo ondoren, 2016an adingabe kopuru berdinak erabili zuen jantokia, hots, aurreko bi urteetan bezalatsu.

Honako hau da zerbitzuaren erabiltzailearen profila: gizona (% 82,35; emakumea, berriz, % 17,65), jatorri nazionalak (% 36) eta ezkongabea (ehuneko berean). Artatutako helduen ia % 59k ez zuten inolako prestaziorik jasotzen administrazioetik, eta % 82 baino gehiago hirian erroldaturik zeuden.

Erabiltzaileak 23 nazionalitateetakoak izan ziren. % 53,3 Europar Batasuneko herrialdeetako herritarrak ziren. Nazionalitateen arabera, 74 espainiarrez gain (% 36), jantokiak, besteak beste, 20 poloniar eta 20 errumaniar artatu zituen (% 9,80, nazionalitate bakoitzeko), baita 18 marokoar (% 8,82) eta 12 nigeriar (% 5,88) ere.

2016an, 27.638 zerbitzu eman ziren (10.685 bazkari, 8.831 afari eta 8.122 gosari). Gosari, bazkari eta afari gehien abenduan zerbitzatu ziren, eta gutxien, otsailean. Ohiko joeraz kontra, abuztua izan zen erabiltzaile gehien artatu ziren hilabeteetako bat.

Udal-jantokiak urteko egun guztietan eskaintzen ditu zerbitzuak, uztailaren 6tik 14ra bitarte izan ezik. Hala ere, 2016an, *Amatxok jaten ematen digu* zerbitzu alternatiboa eskaini zen, hori eskatu zutenei, Xilema Fundazioaren Gizarteratze Zentroaren bitartez.

Auzo Unitateen bidez edo Udalaren beste gizarte-zerbitzu batzuen bidez sartu beharra dago udal-jantokiaren zerbitzuan. 2016an, Alde Zaharreko, Arrotxapeko eta Milagrosako auzo-unitateek bideratu zuten jende gehien jantokira, 30, 27 eta 25 lagun, hurrenez hurren.

LAGUNTZEN ETA HITZARMEN SINATUEN BESTE UDAL-DEIALDI BATZUK

DIRU-LAGUNTZAK, IRABAZI-ASMORIK GABEKO ENTITATE ETA ELKARTEENDAKO

GIZARTE-EKINTZA

Iruñeko Udalak gizarte-ekintzako jarduerak garatzen dituzten 50 proiektu lagundu zituen diruz: 31 (desgaitasuna eta menpekotasuna) eta 19 (gizarteratzea). Deialdiak 290.000 euroko aurrekontua mantendu zuen, baina jada ez zuen barne hartu adingabeendako arreta aisia eta denbora librearen arloetan, 2016an berezko deialdi bat izan baitzuen. Lehenago bereizitako kategorietan, zenbatekorik handienak Asociación Servicio Socioeducativo Intercultural (SEI) elkartearentzat (12.500 euro) eta ADECO Fundazioarentzat (9.563 euro) izan ziren.

PREBENTZIORAKO ETA SUSTAPENERAKO PROIEKTU KOMUNITARIOAK, HAUR ETA GAZTEEN AISIAREN ETA DENBORA LIBREAREN ESPARRUAN

2016an, berezko deialdi baten bidez berreskuratu zen (2012an desagertua baitzen), eta haurrendako prebentzio- eta sustapen-baliabideak eskaini zituen; batez ere, artean ere Prebentzio Ekintza Komunitarioko Zerbitzua iritsia ez zen auzoetan.

Udalak 6 proiektu lagundu zituen diruz, eta 45.000 euro guztira eman zituen. Buztintxureando Txuri haur- eta gazte-elkarteak jaso zuen dirutzarik handiena (23.808,96 euro), *Buztintxureando Txuri* esku-hartzeko proiektua garatze aldera. Ondotik, Fundación Itaka-Escolapios Itaka Eskolapioak Fundazioak 11.369 euro jaso zituen, Ikaskide gizarte- eta hezkuntza-proiekturako.

HITZARMENAK ETA KONTRATUAK

Udalak, hitzarmenak sinatuz, gizarte-intereseko proiektuak garatzen dituzten elkarte eta entitate jakin batzuekiko laguntza finkatu nahi du. 2016an, hitzarmenak berretsi ziren honako entitate hauekin:

- **Nafarroako Gobernua.** 2014an sinatutako hitzarmena mantendu zen; hitzarmen haren bidez, Zabalguneko eta Arrotxapeko 13 etxebizitza laga zitzaizkion Etxebizitza Sozialerako Nafarroako Funtzari, aterpe-premia duten pertsonei zuzendua. Kudeatzailea Adsis-Santa Lucía da.
- **Nafarroako Elikagai Bankua Fundazioa.** Haren jarduna finantzatu zen, zehazki laguntza emanez elikagaiak doan bildu, gorde eta banatzeko egoera sozio-ekonomiko larrian edo gizarte-bazterketa zein pobreziako egoeran dauden Iruñeko herritarren artean. 40.000 euroz hornitua dago.
- **CERMIN-Elbarritu Ordezkarien Batzordea Nafarroan.** 15.000 euroz hornitua dago, eta, haren bidez, desgaitasunari buruzko informazio-, aholkularitza-, prestakuntza-, sentsibilizazio- eta koordinazio-programa finantzatu zen, baita desgaitasunaren eta familien elkarte-mugimenduaren jardueren eta zerbitzuen berri emateko proiektua ere.
- **Gobernuz Kanpoko Erakundeen Koordinakundea.** 30.400 euro eman ziren, garapenerako lankidetzaren arloko informazio- eta koordinazio-programa bat finantzatzeko, Nafarroan diharduten erakundeek berek eginga.
- **Secretariado Gitano Fundazioa.** 30.000 euro eman ziren ijito etniako familietan esku hartzeko, familia-unitate batzuek dituzten arazo sozio-familiar larriak bere osoan moldatze aldera, eta, era berean, adingabeek bizikidetzan nahiz integrazioan dituzten zailtasunak eta defizit sozialak arintzen saiatze aldera.

- **NUPEkiko kontratua, proposamen tekniko bat egituratzeko, Bizikidetzari buruzko Diagnostika eta Kulturen arteko Esku-hartze Sozial Parte-hartzaile bat egite aldera Etxabakoitz auzoan. Kostuak, guztira, 6.000 euro gehi BEZa jo zuen.**

PERTSONENDAKO EDO FAMILIENDAKO DIRU-LAGUNTZAK

Gizarte Ekintzako eta Komunitate Garapeneko Alorrak, halaber, pertsonendako edota familiendako diru-laguntzak biltzen ditu, hau da, alor horretako zerbitzuek eta programek izapidetzen dituzten laguntza guztiak, krisi- eta gizarte-babesgabetasuneko egoeretan dauden pertsonen eta familien diruz laguntzeko.

- **Elikadura ikastetxeetan Iruñeko familiei jantokia ordaintzeko diru-laguntza ematen diete, errentaren arabera, Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat. 2016an, 567.977 euro bideratu ziren horretarako.**
- **Gizarte-larrialdia Deserrotzea edo gizarte-bazterketa sortu edo areagotu dezaketen salbuespenezko eta premiazko egoerak arindu nahi dira. Mantenu- eta ostatu-gastuak eta hornidurakoak (argia, ura, gasa) finantzatzen ditu. 2016an, 652.179 euro bideratu ziren horretarako hasiera batean.**
- **Etxebizitzaren aldeko programa. Programak diruz laguntzen die, aldi baterako, azpi-etxebizitzan edo etxebizitza desagokian bizi eta etxebizitza eskuratzea edo etxebizitzari eustea arriskuan jar dezakeen krisi-egoeran dauden familiei, alokairua hein batean eta aldi baterako ordain dezaten. 2016an, guztira 366.554 euro jo zuten laguntzak eman ziren.**
- **Diru-laguntzak, 0 eta 12 urte arteko adingabeak dituzten familiendako, familia-, gizarte- eta lan-ardurak bateragarri egin ditzaten. Behar adina diru-baliabiderik ez duten edo familia-laguntzarik ez duten zerbitzuak ordaintzera daude bideratuak. 2016an, 4.017 euro bideratu ziren horretarako.**
- **Egonaldiak errehabilitazio-etxeetan Deialdi honen xedea droga kontsumitzeko ohitura hausteko prozesuetan ari direnei laguntzea da, baldin eta pertsona horiek ez badute diru-bitartekorik eta Nafarroako Gobernuarekin lankidetzat hitzarmena sinatua duten zentroetan ari badira desintoxikazio-tratamenduan, hau da, Egiarte Ibarre Multzoa zentroan, Gizakia Helburu-n eta Antox-Larraingoako komunitate terapeutikoan. 2016an, 58.608 euro bideratu ziren.**
- **Taxi-bonua Xedea da garraiobide alternatibo egokitu bat ematea desgaitasun larriko pertsonen, beren mugikortasuna taxi-zerbitzu publikoa erabiliz moldatu dezaten. 2016an, 160.000 euro bideratu ziren horretarako. Azpimarratzekoa da azken urteotan onuradun kopurua nabarmen handitu dela; 2014an, 270; 2015ean,**

289 (% 7 gehiago), eta 289, 2016n (aurreko urtean baino % 12 gehiago, eta % 20 gehiago, 2014an baino).

Udal-prestazio guztien taula


Prestazioak	2012	2013	2014	2015	2016
Gizarte-larrialdiko egoeran dauden familiak	181.200	306.176	382.319	393.836	652.179
Eskola-jantokiak	508.000	580.000	495.000	402.137	567.977
Familia ugarien eskola-jantokiak	180.000	91.000	-----	-----	-----
Etxebizitza aldeko programaren alokairuak	170.000	170.000	250.000	361.223	366.554
Tratamenduak errehabilitazio-etxeetan	36.000	36.000	36.000	26.161	58.608
Haurrak artatzea (0-12)	80.000	40.000	40.000	8.660	4.017
Diru-laguntzak gizarte-ekintzako entitateei, haur eta gazteendako aisia eta denbora librearen barne. ¹	152.000	290.000	290.000	290.000	290.000
Haur eta nerabeendako prebentzioa eta sustapena, aisia eta denbora libreko jardueren bidez					45.000
Taxi bonua	140.000	140.000	160.000	115.823,37	141.621
Guztira	1.447.200	1.653.176	1.653.319	1.938.840	2.433.958

Gizarte-larrialdian dauden familiendako laguntzek 652.179 euro jo zuten 2016an; hau da, igoera handia, 2015aren aldean, hala pertsona kopuruetan (1.340) nola bana beste pertsona bakoitzari emaniko zenbatekoan (455,70 euro). Guztietatik, % 63 emakumeak izan ziren (844). Jatorriaren arabera, laguntza guztietatik, 231 Arrotxapera joan ziren; 192, Milagrosara; eta 141, Txantrea. Programen arabera (emakida bidez), laguntzen ia % 75 Harrera Programaren bitartez bideratu ziren; gero, % 12, Haur eta Familiendako Programaren bidez.

2016an guztira izaniko 2.258 eskaeretatik, gehienak Arrotxapetik (350), Milagrosatik (332) eta Etxabakoiztik (255) heldu ziren; berriz ere, gehienak Harrera Programaren bidez.

Prestazio horien bilakaera azken 18 urtean. 2015etik 2016ra, aldaketa % 68tik gorakoa izan zen.

¹ Barne dago haur eta gazteendako aisia eta denbora librearen barne, 2016a bitarte. Urte horretatik aurrera, berezko deialdia du, bere aurrekontua eta guzti.



GARAPENAREN ALDEKO NAZIOARTEKO LANKIDETZA

Iruñeko Udalak Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Programa dauka, 1996tik aurrera, herrialde pobreenetako edo Hegoaldeko herrialdeetako herriei eta komunitateei laguntze aldera.

Hona hemen programaren helburuak, zeinek, aldi berean, jarduketa-ildoak zehazten baitituzte:

- Garapenari eta nazioarteko elkartasunari laguntza emateko udal-politika garatzea.
- Herrialde eta komunitate pobreenetako egoeraren berri ematea eta horiek egoera hori gainditzeko egiten dituzten ahaleginak jakinaraztea (sentsibilizazioa), bai eta garapenaren aldeko hezkuntza sustatzea ere Iruñeko esparruan.
- Laguntza ematea, Hegoaldeko herrialdeetan giza garapenerako programak egiteko.
- Hondamendi naturalek edo giza jatorriko gatazkek eragindako giza larrialdietako egoeretatik edo laster gertatu beharreko arrisku batetik datozen ondorioak arintzeko jarduketak sustatzea.
- Egiten diren jarduketak ebaluatzeko lerro bat mantentzea, programaren berriazko zati bezala.
- Komunikazio eta partaidetzarako bideak sustatzea, Iruñeko Udalaren eta Iruñean garapenaren aldeko lankidetzaren eta nazioarteko elkartasunaren esparruan etengabe lan egiten duten GGKEen, taldeen eta erakundeen artean.

1.445.668 euroko aurrekontua bideratu zen 2016an jarduketa horiek egiteko, hau da, Iruñeko Udalaren aurrekontuaren % 0,7. Horrek esan nahi du lortu egin zela Nazio Batuen Erakundeak garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzara bideratzea gomendatzen duen gutxieneko ehunekoa. Horrenbestez, hiriko auzokide bakoitzeko 7,39 euroko ekarpena egin zen.

Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Programak diru-laguntzetarako bost deialdi bultzatu zituen 2016an, Iruñean finkatuak dauden eta jarduerak bertan egiten dituzten Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeei (GGKE) laguntza emateko. Deialdi horietako bi Iruñean garapenaren aldeko sentsibilizazioa eta hezkuntza lantzen dituzten proiektuetara bideratzekoak ziren; beste bi nazioarteko garapenerako proiektuetara bideratzekoak ziren, beste herrialde batzuetan; eta bosgarrena, giza larrialdiko ekintzetara bideratzekoa.

2016ean, Garapenaren aldeko Sentsibilizazio eta Hezkuntza Arloaren barnean, Iruñean egitekoak ziren 16 proiektu lagundu zituen diruz Iruñeko Udalak, 100.000 euroan. Haien artean,

elkartasunaren gainera prestakuntza-ekimenak zeuden; adibidez, bidezko merkataritza eta ekonomia solidarioari buruzkoak eta giza eskubideei edo genero berdintasunari buruzkoak, bai eta Saharaz hegoaldeko herrialde afrikarren egoera ezagutzeko jarduerak ere. Unean-unean ekintzen deialdian, 7 jarduerari eman zitzaizkien laguntza; besteak beste, honako hauei: azterketa- eta eztabaida-jardunaldiak, Garapen Politiken Koherentzia Indizeari (herrialdeek giza garapenarekiko duten konpromisoa neurtzeko, ebaluatzeko eta alderatzeko) buruzko jardunaldi bat, argazki-erakusketak eta ipuin solidarioen lehiaketa bat; guztira, 6.633 euro izan ziren.

Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzaren Arloaren barruan, bi deialdi egin ziren, 2015ean bezala. Hegoaldeko herrialdeetan garapenaren aldeko nazioarteko Lankidetzaproiektuak sustatzeko urteroko deialdiaren barnean, Udalak 34 proiektu lagundu zituen diruz 22 herrialdeetan; zenbatekoak, guztira, 929.000 euro jo zuen. Proiektuen % 85,2 gizarte-izaerako oinarritzko azpiegiturei lotuta zeuden (osasuna, hezkuntza, gizarte zibileko erakundeak bultzatzea, ura eta saneamendua, biztanleria-taldeei zuzendutako programak, ugalketa-osasuna, etab.).

Hegoaldeko toki-erakundeekiko garapenaren aldeko Lankidetzaproiektuetarako deialdia 2006an jarri zen abian; urtebeteko proiektuetarako deitzen da (gehienez ere hiru urtez iraunen duten proiektuetarako), eta Hegoaldeko udalerriek sustatutako toki-garapenerako ekimenei ematen die laguntza. 2016an, Nikaraguako proiektu batekin zegoen konpromisoari eutsi zitzaion eta Mozambikeko ekimen bati laguntza ematen hasi zitzaion.

Azkenik, Giza larrialdietarako Jarduketan deialdiak honako hau du xedetzat: hondamendi naturalen edota biztanleria zibila ukitzen duten giza jatorriko gatazken ondorioak arintzea; 84.000 euroko aurrekontua izan zuen. Zazpi larrialdi-jarduketa finantzatu ziren; horietako bostek gatazka armatuengatik errefuxiatutako eta/edo desplazatutako zibilei arreta ematea zuten xede (errefuxiatu sahararrak, bi proiektu Afrika Erdiko Errepublikan, bat Jordanian eta beste bat Sirian). Beste bi kasuetan, katastrofe naturalak jasan dituzten pertsonentzako proiektuak ziren: Ekuadorreko lurrikara bat eta Peruko Loreto oihanean izandako petrolio-isuri bat.

Giza larrialdietarako laguntzen deialdiko funtsak bukatu eta gero, eta Matthew urakanak Haitin barrena pasatzean sortutako katastrofearen larritasuna ikusita, ohiz kanpoko mekanismoak jarri ziren martxan hango biztanleei laguntzeko, 18.092 euroko ekarpena eginda. Ildo horretatik, lankidetzahitzarmen bat sinatu zen UNICEFen Nafarroako Batzordearekin “gaixotasun kutsakorrek prebenitzeko ur edangarria hartzeko sistema bat martxan jarri, eta saneamenduaren eta higienearen bidez”.

2016an, Iruñeko Udalak lankidetzahitzarmen bat sinatu zuen urtero bezala Garapenaren aldeko Gobernu kanpoko Erakundeen Nafarroako Koordinakundearekin, koordinakundeak berak hirian kudeatzen duen Argibide Bulegoa mantentzea finantzatzeko. Udalak 30.400 euro eman zituen; hau da, bulegoaren kostearen % 87,1. Bulego horretan, zuzeneko arreta ematen


da, hamabostean behingo aldizkari bat argitaratzen da, entitateen direktorio bat eta GKEen jarduera-agenda bat mantentzen dira, bai eta www.congdn Navarra.org

Era berean, udal-programa honek sare-lana egiteari eutsi zion lankidetzaren deszentralizatuaren arloko beste erakunde batzuekin batera, hainbat lan-batzorderen bidez. Halaber, bilerak egin ziren pertsona, talde eta GGKEekin; Hegoaldeko 10 entitateri edo pertsonari egin zitzaizkien harrera; eta, horrez gain, Garapenaren Aldeko Lankidetzaren Udal Kontseilurako partaidetza bideratu zen.

Guztira, 73 proiektu babestu ziren 2016an zehar.

Jarduketa-ildoei dagokienez, aurreko urteetako antzeko ehunekoak mantendu ziren, eta Garapenerako Proiektuek jaso zuten betetako aurrekontuaren zatirik handiena (% 82,0 - % 75,6, jarduketetara bideratutako dirua edo GLUPen diru guztia kontuan hartzen den). Garapenaren aldeko sentsibilizazio- eta hezkuntza-jarduketetara eta Giza larrialdietarako jarduketetara % 10,3 - % 9,5 eta % 7,7 - % 7,1 bideratu zen, hurrenez hurren.

1. grafikoa. 2016. urteko aurrekontuaren betetze-maila, jarduketa-ildoen arabera



1. koadroa: 2016ko aurrekontua - Aurrekontuaren betetze-maila

LAN-ILDOA	Zk.	2016ko betetze-maila	Ehunekoa (%)
SENTSIBILIZAZIOA	24	137.033	%9,5 / %10,3
- Diru-laguntzetarako deialdia: Unean uneko jarduketak	7	6.633	%0,5
- Diru-laguntzetarako deialdia: Urteko proiektuak	16	100.000	%7,5
- Lankidetzeta-hitzarmena: Argibidea eta Koordinazioa	1	30.400	%2,3
TOKI-GARAPENA	41	1.093.000	75,6 / 82,0
- Diru-laguntzetarako deialdia: Urteko proiektuak	34	929.000	%69,7
- Diru-laguntzetarako deialdia, Hegoaldeko toki-entitateentzat	2	120.000	%9,0
- Garapenaren aldeko Lankidetzako Toki Funtza (NUKF)	5	44.000	%3,3
GIZA LARRIALDIETARAKO LAGUNTZA	8	102.092	%7,1 / %7,7
- Diru-laguntzetarako deialdia: Giza Larrialdiak (GLL)	7	84.000	%6,3
- Hitzarmena, Haitiko Giza Ekintza gauzatzeko	1	18.092	%1,4
<u>Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Programaren JARDUKETEN GUZTIZKO PARTZIALA</u>	73	1.332.125	%92,1 / %100
PMCDren JARDUNAREN GUZTIZKO PARTZIALA		113.668	%7,9
GUZTIRA GAUZATUA		1.445.793	%100

2. koadroa: 2016ko aurrekontuaren betetze-maila: Finantzaketaren banaketa geografikoa

Geografia-esparrua	€	%	Geografia-esparrua	€	%
Hego Amerika	180.867	%13,6	Afrika	557.224	%41,8
Bolivia	78.843		Burkina Faso	23.866	
Kolonia	48.154		Kamerun	25.200	
Ekuador	12.000		Txad	58.668	
Peru	41.870		Boli Kosta	11.152	
Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibe	354.951	%26,6	Kenya	22.894	
Kuba	25.026		Mali	66.644	
El Salvador	90.300		Mauritania	30.100	
Guatemala	30.083		Mozambique	88.647	
Haiti	94.242		Niger	43.702	
Nikaragua	115.300		Errefuxiatu sahararrak	75.020	
Ekialde Ertaina	49.200	%3,7	Afrika Erdiko Errepublika	24.000	
Jordania	12.000		Kongoko Errepublika Demokratikoa	65.100	
Siria, Arabiar Errepublika	12.000		Ruanda	22.231	
Palestinako Lurralde Okupatuak	25.200		Asia	52.850	%4,0
Europa	137.033	%10,3	India	27.650	
Iruña	137.033		Pakistan	25.200	

Guztira: 1.332.125 euro

Garapenaren aldeko Lankidetzarako Udal Programak lagundutako garapenaren aldeko lankidetzaz-jarduketan banaketa geografikoari dagokionez, hiru eremu handi daude (Erdialdeko Amerika-Mexiko-Karibe, Afrika eta Hego Amerika). Guztira, udal-finantzaketaren % 82,1 jaso zuten (% 91,5, ez badira kontuan hartzen Iruñean egindako sentsibilizazio-proiektuak).

2016an, 27 herrialdek jaso zuten Udalaren finantzaketa; guztien artean, Nikaragua eta Haiti nabarmentzen dira, diru-hartzaile nagusiak izan baitziren (udal-funts guztien % 8,7 eta % 7,1, hurrenez hurren). Gero hauek datoz: El Salvador (% 6,8), Mozambike (% 6,7), Bolivia (% 5,9), errefuxiatu sahararrak (% 5,6), Mali (% 5,0), Kongoko Errepublika Demokratikoa (% 4,9) eta Txad (% 4,4). Bederatzi herrialde horietako bakoitzak gutxienez ere 58.600 euro jaso zituen eta guztien artean programaren % 55 bildu zuten (% 61,3 ez badira kontuan hartzen sentsibilizaziora eta garapenaren aldeko hezkuntzara bideratutako funtsak).

Jarduera-sektoreei dagokienez, herritar onuradunen oinarritzko beharrak asetzera bideratutako proiektuen aldeko apustuari eutsi zion programak argi eta garbi, bai eta jarduketan izaera integrala nabarmentzen zuten proiektuei zein gizarte zibileko erakundeak indartzea eta genero-gaiak lantzea xede zuten proiektuei ere. 2016an, jarduketa-sektorearen arabera, gizarte-azpiegiturak sortu eta mantentzeko laguntzak diruaren % 71,7 bildu zuen, eta, ondotik, garapenaren aldeko sentsibilizazioak eta hezkuntzak (% 10,3), larrialditako laguntzak (% 7,7) eta sektore produktiboak (% 4,7). Lau sektore horiek Garapenaren aldeko Lankidetzara bideratutako aurrekontuaren % 94,4 bildu zuten.

2. grafikoa: 2016ko aurrekontuaren betetze-maila: Banaketa, jarduketa-sektorearen arabera

